



Arbizuko Udala

EUSKARAZ IKASTEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA

1. Araudiaren xedea

Arbizuko erroldan dauden pertsoneri, euskarazko ikastaroak egiten aritzeagatik, diru-laguntzak emateko baldintzak ezartzea du helburu araudi honek.

2. Onuradunak

Ondoko baldintzak betetzen dituzten pertsonak baliatzen ahalko dira laguntza hauetaz:

- a) Arbizuko udalerriko erroldan egotea, urtebeteko antzintasunaz, gutxienez ere.
- b) 16 urtetik goitiko izatea, inskribatzeko orduan.
- c) Euskaraz ikasteagatik, ekitaldi berean, Sakanako Mankomunitateak eskaini duen diru-laguntza eskatu eta jaso izana.

3. Laguntzen zenbatekoa

- a) Aurrekontuetan gehienez ere aurreikusi den diru-esleipena, behar den epean eta behar den moduan aurkezten diren eskaeren artean zatituko da deialdiko baldintzak betetzen dituztenen artean, betiere diru-laguntzek deialdiari esleitu zaion diru-kopurua baino gehiago jotzen badute. Matrikula lagunduko da, kilometrajea, aldiz, ez.
- b) Diru-laguntza jasotzeari begira, lehentasuna emanen zaie langabeei, halako moldez non langabeei egokituko zaien diru-laguntzaren ehunekoa gainerako eskatzaileena baino %25 handiagoa izanen baita.
- c) Deialdi honen diru-laguntzak bateragarriak dira beste entitate publiko edo pribatuek helburu berarekin emandako laguntzekin, baldin ez badago gehiegizko finantzabiderik.
- d) Eskaera bat baino gehiago egiten denean, 300,00 euroko diru-laguntza emanen da, gehienez ere, eskaera bakoitzeko.
- e) Horretarako aurrekontuan ezarritako diru kopurua ez da inoiz gaindituko. Xede hauetarako, guztira, 500,00 euro erabiliko dira. Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.



Arbizuko Udala

4. Aurkeztu beharreko dokumentuak

- a) Eskabidea.
- b) Eskatzailearen nortasun agiri nazionalaren fotokopia.
- c) Hori dena zuzenean edo Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak aurreikusitako beste prozeduraren bat erabiliz egin ahal izango da. Hona helbidea:

Arbizuko Udala
Kale nagusia, 7
31839 Arbizu
948460017

5. Eskabideen aurkezpena

- a) Eskakerak Arbizuko udaletxean beharke dira aurkeztu, bulegoetan edo web gunean eskuratutako inprimakia baliatuz, eskatutako dokumentazioarekin batean.
- b) Eskakerak aurkezteko epea, Sakanako Mankomunitateak euskaraz ikasteagatik eskaintzen duen diru-laguntzen ebazpena jakinarazten den egunetik aurkeztu ahalke dira. Eskakerak, data horretatik eta 15 egun natural igaro arte aurkeztu ahalke dira.
- c) Beste entitate batzuen diru-laguntza eskatuz gero, espresuki aztertuko da diru-laguntza jaso den edo ez eta horren zenbatekoa. Horretarako, diru-laguntzak ematen dituzten entitate horiei eskatuko zaizkio ekitaldi honetan diru-laguntza jaso duten eta Arbizun erroldatuta dauden herritarren zerrenda eta xehetasunak.

6. Eskabideko akats zuzenketa

Aurkeztutako eskaerak baldintzak betetzen ote dituzten aztertuko du Udalak. Aurkeztutako dokumentazioan akatsik bada edo dokumenturen bat falta bada, bost eguneko epea emanen zaio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo dokumentazioa osatzeko. Epe hori iraganik akatsak zuzendu edo falta den dokumentazioa aurkeztu gabe, eskatzaileak eskaerari uko egin diola ulertuko da.



Arbizuko Udala

7.Ebazpena.

Deialdiaren diru-laguntzak esleitzeko ebazpena Arbizuko alkateak emango du, eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hamabost egunetan.

Ebazpen hori interesatu guztiei jakinaraziko zaie. Esleipen ebazpenean nori eman zaion diru-laguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko dauden errekurso bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, interesatuek egoki iritzitako beste edozein errekurso bide erabiltzeko eskubidea baztertu gabe.

Ebazpena eman eta ordaintzeko epea lau hilabetekoa da, gehienez ere. Diru-laguntza eman eta ordainketa agintzeko ebazpena emateko epea urte bereko abenduaren 31n amaituko da. Behin epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaro eta gero, eskatzaileak eskaera ezetsizat jotzen ahalko du.

8.Diru-laguntzen itzulketa.

Onuradunek diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli beharko dute ondotik azaltzen direnak gertatzen direnean:

- a) Diru-laguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe, onuradunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik.
- b) Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c) Bateriaezinak diren diru-laguntzak aldi berean jasotzea.
- d) Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

9.Arau-hauste eta zehapenak.

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Diru Laguntzen Erregelamendu Orokorrak aginduko dute. Zehapen prozedura Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko V. tituluan ezarritakoa izanen da.

10.Datuen babesa.

Eskatzaileen datuak Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira. Eskatzaileek ematen dituzten datuak Arbizuko Udalak kudeatzen dituen datu pertsonalen



Arbizuko Udala

fitxategietan sartuko dira. Betiere helburua izango da diru-laguntzen deialdi hau eta horrekin zerikusia duen beste edozein administrazio espediente kudeatzea. Fitxategi horren arduraduna Arbizuko Udala izango da, eta sartu, zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak Arbizuko Udaleko bulegoan (Arbizu, Kale nagusia 7) egikaritu ahal izango dira.

11.Auzibidea.

Araudi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

12.Errekurtsoak.

Araudi honen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

EGINBIDEA: 2014-10-30 Plenoan onartua izan da.

Idazkaria.